Hizkuntzaren jabekuntza eta garapena

Joana Acha

Udako Euskal Unibertsitatea eta
Euskal Herriko Unibertsitatea
Bilbo, 2026

© Udako Euskal Unibertsitatea
© Euskal Herriko Unibertsitatea
©Joana Acha

UEUren ISBNa: 978-84-8438-964-4
UPV/EHUren ISBNa: 978-84-1319-796-8
Lege-gordailua: BI-00858-2026

Inprimategia: IMPRIME_ ABZ Impresión Digital
Azalaren diseinua: Igor Markaida
Hizkuntza-zuzenketen arduraduna: Ander Altuna Gabiola

Banatzaileak:
UEU. Erribera 14, 1.D Bilbo 946 790 546 argitalpenak@ueu.eus www.ueu.eus
EHU. argitalpenak@ehu.eus www.ehu.eus/argitalpenak
Elkar Banaketa: Haizpea Industria gunea, 1 ADUNA

Galarazita dago liburu honen kopia egitea, osoa nahiz zatikakoa, edozein modutara delarik ere, edizio honen Copyright-jabeen baimenik gabe.

Liburu honek UEUren argitalpengintzako ebaluazio-prozesua gainditu du; liburuaren jakintza-alorreko bi adituk ebaluatu dute jatorrizkoa, *peer review*-erako ebaluazioan, egilearen daturik ezagutu gabe (*double-blind*).

Aurkibidea

HITZAURREA **11**

SARRERA **13**

LEHENENGO ATALA
Hizkuntzaren garapenaren oinarriak **17**

1. GIZA KOMUNIKAZIOA ETA HIZKUNTZAREN OINARRIAK **19**
1.1. Komunikazio-gaitasuna eta hizkuntzaren jabekuntza 19
1.1.1. Haurren ekipamendua eta ikasketa-ibilbidea 21
1.1.2. Arreta bateratua eta komunikazio-gaitasunaren garapena 23
1.1.3. Komunikazio-ikaskuntzan testuinguru sozialaren eragina 25
1.2. Hizkuntzaren oinarri biologiko eta kognitiboak 29
1.2.1. Hizkuntzaren oinarri biologikoak 29
1.2.1.1. Komunikazioari eusten dioten burmuin-mekanismoak 30
1.2.1.2. Hizkuntzari eusten dioten burmuin-mekanismoak 31
1.2.2. Hizkuntzaren oinarri kognitiboak 35
1.3. Zer ikasten dute haurrek hizkuntza ikasten dutenean? 37
1.3.1. Fonologia: hitzen oinarrizko osagaia 38
1.3.2. Lexikoa: hitzen artxibo mentala 39
1.3.3. Semantika: esanahiarekin lotura 40
1.3.4. Morfosintaxia: eraikuntza-arauak 41
1.3.5. Pragmatika: hizkuntza erabiltzeko artea 42
1.4. Bibliografia 43
1.5. Autoebaluazioa 47

2. HIZKUNTZAREN JABEKUNTZA ETA GARAPENAREN EREDUAK 49
2.1. Hizkuntza-garapenaren azterketa historian zehar 49
2.2. Hizkuntza eskuratzeko ikuspegi teorikoak: aldeko eta kontrako frogak 56
2.2.1. Jokabidearen teoriak 56
2.2.1.1. Jokabide-teorien aldeko frogak 59
2.2.1.2. Jokabide-teorien aurkako frogak 60
2.2.2. Teoria natibistak 61
2.2.2.1. Teoria natibisten aldeko frogak 63
2.2.2.2. Teoria natibisten aurkako frogak 64
2.2.3. Teoria interakzionistak 66
2.2.3.1. Subjektuaren eta ingurunearen arteko elkarreragina: Piaget-en konstruktibismoa 66
2.2.3.1.1. Konstruktibismoaren aldeko frogak 68
2.2.3.1.2. Konstruktibismoaren aurkako frogak 68
2.2.3.2. Adimenaren eta sarreraren arteko elkarreragina: informazioaren prozesamenduaren teoriak 69
2.2.3.2.1. Prozesamenduaren teorien aldeko frogak 71
2.2.3.2.2. Prozesamenduaren teorien aurkako frogak 72
2.2.3.3. Subjektuen arteko elkarreragina: ikuspegi soziokognitiboa 73
2.2.3.3.1. Ikuspegi soziokognitiboaren aldeko frogak 75
2.2.3.3.2. Ikuspegi soziokognitiboaren aurkako frogak 76
2.3. Bibliografia 77
2.4. Autoebaluazioa 81

3. HIZKUNTZAREN IKERKETA-METODOLOGIA ETA NEURKETA HAURTZAROAN 83
3.1. Hizkuntzaren garapenaren ikerketa-diseinuak 84
3.1.1. Garapen-diseinuen berezitasunak 86
3.1.2. Hizkuntzalaritzako ikasketak diseinatzerakoan kontuan hartu beharreko alderdi garrantzitsuak 87
3.2. Datuak biltzeko metodoak eta analisi-prozedurak 88
3.2.1. Datuak biltzeko metodoak 89
3.2.1.1. Komunikazioa 98
3.2.1.2. Fonologia 99
3.2.1.3. Hiztegia 100
3.2.1.4. Gramatika 101
3.2.1.5. Hizkuntza-trebetasun orokorrak 103
3.2.2. Neurketak eta analisi-prozedurak 105
3.3. Bibliografia 107
3.4. Autoebaluazioa 110

BIGARREN ATALA
Hizkuntzaren garapenaren aroak 111

4. HIZKUNTZAREN GARAPENA HAUR-HEZKUNTZAKO AROAN 113
4.1. Garapen fonologikoa haurtzaroan: ahozko aurreko fasea 113
4.1.1. Fonemak: hizkuntzaren oinarrizko osagaiak 114
4.1.2. Fonologia suprasegmentala eta segmentala: hizkuntza ikasteko gakoak 118
4.1.3. Haurren soinuen pertzepzioa: ahozko aurreko fasea 120
4.1.4. Haurren soinuen ekoizpena: ahozko aurreko fasea 122
4.1.5. Zizakaduratik lehen hitzetarako trantsizioa 124
4.1.5.1. Hitzetarako trantsizioa, haurrarekin lotutako faktoreak 126
4.1.5.2. Hitzetarako trantsizioa, testuinguruarekin lotutako faktoreak 127
4.1.6. Ohiko akats fonologikoak eta banakako desberdintasunak haurtzaro goiztiarrean 128
4.2. Garapen semantikoa haurtzaroan: ahozko fasea 130
4.2.1. Lehenengo hitzen agerpena eta garapena 130
4.2.2. Garapen semantikoa 1 eta 3 urte bitartean: zer ikasten dugun 133
4.2.3. Garapen semantikoa 1 eta 3 urte bitartean: nola ikasten dugun 136
4.2.3.1. Garapen semantikoa, haurrarekin loturiko faktoreak 138
4.2.3.2. Garapen semantikoa, testuinguruarekin loturiko faktoreak 140
4.2.4. Sistema semantikoa eta garapen kontzeptuala 143
4.2.4.1. Akats lexiko-semantikoak: hitza eta kontzeptua bat ez datozenean 145
4.3. Garapen semantikoa 3 eta 6 urte bitartean 146
4.4. Garapen metalinguistikoa 3 eta 6 urte bitartean 148
4.5. Garapen morfosintaktikoa haurtzaroan 150
4.5.1. Garapen morfosintaktikoa: zer ikasten dugun 150
4.5.2. Garapen morfosintaktikoa: nola ikasten dugun 153
4.6. Haur Hezkuntzan hizkuntzaren garapena sustatzeko gakoak 158
4.7. Bibliografia 161
4.8. Autoebaluazioa 168

5. HIZKUNTZAREN GARAPENA ESKOLA-AROAN 169
5.1. Hitzak lotzeko prozesua: garapen morfosintaktikoa eskola-aroan 169
5.1.1. Egitura sintaktiko konplexuen ulermena eta erabilera 172
5.1.2. Mendeko perspausen konplexutasuna: erlatibozko perpausak 173

5.1.3. Trebetasun metalinguistikoak eta gramatika-ezagutzak eskola-aroan 176
5.2. Hizkuntza pragmatika eta erabilera soziala: elkarrizketa eta narrazioaren garapena 181
5.2.1. Elkarrizketa-estiloen garapena 182
5.2.2. Narrazio-trebetasunen garapena 185
5.3. Eskola-aroan hizkuntzaren garapena sustatzeko gakoak 187
5.4. Hizkuntza eta irakurmenaren garapena eskola-aroan 190
5.4.1. Irakurketa aurreko trebetasunak: irakurketaren oinarriak 191
5.4.2. Fase alfabetikoa: grafema-fonema korrespondentziak ikastea 194
5.4.3. Fase ortografikoa: lexiko bisualaren eraikuntza 195
5.4.4. Testuaren ulermena: lexiko eta esanahirako sarbide automatikoa 197
5.5. Bibliografia 199
5.6. Autoebaluazioa 206

HIRUGARREN ATALA

Erronka berriak hizkuntzaren ikasketan: populazio atipikoa eta elebitasuna .. 207

6. HIZKUNTZAREN GARAPENEAN ARRISKU-SEINALEAK 209
6.1. Hizkuntzaren jabekuntzan banakako aldeak eta hizkuntzaren garapenaren nahasmendua 209
6.2. Hizkuntzaren garapenaren nahasmenduaren ezaugarri linguistiko eta kognitiboak 211
6.2.1. Paradigma-aldaketa: diagnostikotik prebentziora 212
6.2.2. Arrisku-seinaleen sistematizazioa 213
6.2.2.1. Arrisku-seinaleak hizkuntza-mailan 214
6.2.2.2. Arrisku-seinaleak maila kognitiboan 218
6.2.2.3. HGNa garapen-atzerapen batetik bereizteko irizpideak 222
6.3. Idatzizko hizkuntza eskuratzeko zailtasunak: dislexia 225
6.3.1. Dislexia ikuspegi diagnostiko batetik 227
6.3.2. Defizit fonologikoaren hipotesia dislexian: arrisku-seinaleak 229
6.3.2.1. Arrisku-seinaleak hizkuntza-mailan 230
6.3.2.2. Arrisku-seinaleak maila kognitiboan 234
6.3.2.3. Defizit bisualak dislexian 235
6.4. HGNaren eta dislexiaren eredu multidimentsional baterantz 237
6.5. Bibliografia 238
6.6. Autoebaluazioa 245

7. HIZKUNTZAREN GARAPENA TESTUINGURU ELEANIZTUNETAN 247
7.1. Ikuspegi teorikoak eta hizkuntzaren garapena haur elebidunetan 248
7.1.1. Garapen fonologikoa eta soinuen sailkapena 251
7.1.2. Soinuetatik hitzetara, garapen lexiko-semantikoa 254
7.1.3. Morfosintaxiaren garapena haur elebidunetan 256
7.2. Elebitasuna lantzerakoan kontuan hartu beharreko faktoreak 260
7.2.1. Aldagai linguistikoak 260
7.2.2. Haurraren aldagai kognitiboak 262
7.2.3. Testuinguruaren aldagaiak 265
7.3. Elebitasuna eta HGNa 265
7.3.1. Ingurune elebidunetan HGNa duten haurren ezaugarriak eta identifikazioa 266
7.3.2. HGNa duten haur elebidunen hezkuntzako esku-hartzerako aholkuak 271
7.4. Elebitasunaren eragina irakurketaren garapenean 274
7.4.1. Elebitasunaren eraginak irakurketaren maila fonologikoan 277
7.4.2. Eraginak maila alfabetiko eta ortografikoan 278
7.4.3. Eraginak hiztegi eta maila sintaktikoan 280
7.5. Bibliografia 281
7.6. Autoebaluazioa 289

GLOSARIOA 291

TAULEN ETA IRUDIEN AURKIBIDEA 297

AUTOEBALUAZIOAREN ERANTZUNAK 299

Hitzaurrea

Hizkuntzak egiten gaitu

Itziar Laka, hizkuntzalaria

Hizkuntzak egiten gaitu, hitzik gabe ez ginateke garena izango; *Sapiens* espezieko kideak gara eta hitzaren mirariak bereizten gaitu. Mirari honek telepatiaren guztiz antzekoa den gaitasun bat ematen digu: pentsamenduak partekatzeko gai gara, hitzak harilkatuta. Gure gizartea, kultura, artea, zientzia eta teknologia oso-osoan hitzaren bitartez eraikiak dira.

Hizkuntza da gure super-botere nagusia, baina hala ere, gehienoi nahikoa ezezaguna zaigu. Oraindik orain, oinarrizko hezkuntzak ez dio gaiari behar bezala heltzen eta ez du mirari neurobiologiko honen berri ematen. Esku artean duzun liburu honek zuzenean heltzen dio gaiaren garrantziari: hizkuntza gugan nola garatzen den erakusten digu, eta galdera horren inguruan ibili diren eta dabiltzan eredu zientifikoak eta hipotesiak azaltzen. Horrezaz gain, eskolan, egoera eleaniztunean hizkuntza eta irakurmena nola uztartzen diren ikusiko dugu, eta hizkuntzaren garapenean arazoak daudenean horiek ezagutu eta lantzeko bideak ere bai.

Lewis Thomas mediku eta zientzia saiakera idazle ezagunari enkargua egin zioten behin munduko zazpi marabillen zerrenda berria egitekoa. Munduko zazpigarren marabilla, Thomasen hitzetan, haurrak dira, haur guztiak:

> Mundu modernoko zazpigarren marabilla haurra da, edozein haur. Haurtzaroaz eta gure espeziaren eboluzioaz gogoeta egin izan dut maiz. Ez zirudien egokia hainbeste energia xahutzen aritzea zaurgarritasun handiko eta indarrik gabeko denbora tarte luze horretan, biologikoki ia ezer lortu gabe, ez bada haurtzaroko poz xalo axolagabea. Azken batean, nioen nire artean, gizakion bizialdiaren tarte luzea da! Zergatik ez du eboluzioak horren kargu hartu, eta ez digu uzten katuen antzera haurtzarotik helduarora zuzenean salto egiten? Baina hizkuntza neukan ahaztuta, gizaki egiten gaituen ezaugarri bereizi hori, bizirik gordetzen gaituena, biologikoki lurreko izaki sozial konpultsiboena bihurtzen gaituena, intsektu sozialak baino askoz ere elkarren mendekoago eta elkarri lotuagoak. Hori ahaztu zitzaidan, eta haurrek haurtzaroan egiten dutena ere ahaztu. Haurtzaroa hizkuntzarako da[1].

1. Lewis, Tomas (1913-1993) Late *Nights Thoughts* Oxford University Press, 1985.

Joana Acha hizkuntzaren ikertzaile bikainak zuzen eta xehe azaltzen digu liburu zabal eta sakon honetan Thomasen gogoeta hori noraino den egia: haurtzaroaren hasieratik eta eskola urteetara arte eramango gaitu eskutik, hitzak eta perpausak gugan nola jaio eta hazten diren ikasi dezagun, hizkuntza bat baino gehiago tartean direla, garapen horretan idazmenak eta irakurketak duten eraginaz hitz egingo digu eta, baita ere, garapen horretan arazoak non eta nola sor daitezkeen.

Hizkuntzak berebiziko garrantzia dauka edozein gizartetan, bai, baina gurea bezalako inguru elebidun eta eleaniztunetan are garrantzi handiagoa dauka hizkuntzaren garapenaz, izaeraz eta osasunaz ahalik gehien jakiteak, ezagutzaren puntako mugetan nabigatzeak, hezkuntzak eta hizkuntza politikak nolakoa izan behar duen erabakitzean uste ustelen zingiratik atera eta ur zabaleko hodeiertzari begiratzeko: zer esaten digu zientziak hizkuntzen garapenari dagokionean? Zer egin dezakegu etxean hizkuntza bakarra darabilten haurrak elebitasunean eroso hazi daitezen? Nola ezagutu eta lagundu garapenean zailtasunak agertzen direnean? Gure eguneroko bizimoduari eragiten diote galdera hauek denek, ez dira ezagutzaren edertasuneko biztanleak soilik. Hizkuntzari buruzko ezagutza zientifikoak asko lagundu diezaguke funtsik gabeko aurreiritzi kaltegarriak utzi eta gure ondare linguistikoa modurik eraginkorrenean zaindu eta gordetzeko.

Zalantzarik gabe, horretan laguntzera dator, jakituriaz abaildutako sagarrondoaren antzera, liburu eder hau.

Sarrera

Liburu hau giza komunikazioaren eta hizkuntzaren parametroak aldatuko dituen eraldaketa teknologiko baten eraginpean idatzi da. Teknologiaren erabilerak eguneroko objektu gisa aldaketa bat ekarri du, bai pertsonen arteko komunikazio-trukeen kantitatean bai moduan. Era berean, hizkuntza generatiboko ereduen erabilerak aldaketak eragin ditu informazio linguistikoa prozesatzeko erabiltzen dugun egitura kognitiboan. Hala ere, eredu generatiboek hizkuntza sortzeko erabiltzen dituzten printzipio linguistikoak helduen hizkuntzaren antzekoak diren arren, errealitatean oinarritutako eboluzio-esperientzia falta dute. Hizkuntzaren bilakaera-prozesua adimenaren eta errealitate fisiko eta sozialaren arteko elkarreraginaren ondorio dela ulertzeak funtsezko gakoak eskaintzen ditu gaur egun hizkuntzaren konplexutasuna eta sakontasuna baloratzeko gizakiaren ezaugarri gisa. Bi adimen esperientziadunen arteko hizkuntza-erabileraren berezko aberastasuna ez da, behintzat momentuz, gizaki-makinaren komunikazioarekin konparagarria.

Testuinguru horretan, teknologiaren etorrerak arrisku batzuk dakartza. Alde batetik, elkarrekintza digitalen gorakadak hizkuntzaren garapenaren oinarri diren gizarte-interakzioko aukerak murrizten ditu. Bestetik, makinekin elkarreraginean aritzeak gure adimenak hizkuntzan jarduteko erabiltzen dituen parametroak alda ditzake. Erronka honen aurrean, hizkuntza haurtzaroan nola sortzen den eta nola garatzen den ulertzea ia erantzukizun morala da. Horretarako, liburu hau funtsezko galdera batzuei erantzuten saiatzen da; esaterako, nola eraikitzen du haurrak hizkuntza? Zer-nolako esperientzia indibidual eta sozialak dira beharrezkoak hizkuntzaren garapenerako? Hizkuntzak adimenaren funtzionamendua aldatzen al du, edo adimenak modulatzen du hizkuntza eskuratzeko modua? Galdera horien erantzunak jaiotzetik hizkuntza eskuratzeko prozesuaren azalpen zehatza eskaintzea helburu duen testu honetan aurkezten dira, zientzia-lan garrantzitsuetan eta berrikuspen eguneratuetan oinarritutako adibidez baliatuz.

Behar epistemologiko honi zenbait eskakizun praktiko batzen zaizkio. Lehenik eta behin, agian aurretik deskribatutako arrazoiengatik, ahozko eta idatzizko hizkuntzaren garapenarekin lotutako zailtasunak gero eta maizago antzematen ari dira gaur egungo gizartean. Zailtasun horiek ulertzea eta identifikatzea erronka bat da, eta beharrezkoa da hizkuntzaren eskuratze normatiboaren prozesua sistematizatzea, zailtasun horiek garapen-garai egokian detektatzeko eta

prozesuan zer gertatzen ari den ulertzeko. Bigarrenik, gaur egungo gizartearen izaera eleaniztunak hizkuntza eskuratzea eta haren eragina ikuspegi konplexuago batetik aztertzea dakar. Esparru honetan, ezinbestekoa da ulertzea nola kudeatzen dituen haurraren adimenak hainbat hizkuntza-sistema, haien berezitasunekin, edo zenbateraino hizkuntza anitzen erabilerak haurraren adimena molda dezakeen garapen osoan zehar.

Galdera horiei erantzuteko, liburu honek modu sistematiko eta antolatuan azaltzen du hizkuntzaren eskurapena eta garapena jaiotzetik nerabezarora arte, hiru ardatz nagusitan oinarrituta: i) hizkuntza sortzen den oinarri biologiko eta neurologikoak eta haren garapenari heltzeko eredu teoriko nagusiak, lehen hiru kapituluetan jorratzen direnak; ii) hizkuntzaren garapen-prozesua eta hizkuntzaren eta haurraren mundu intelektualaren arteko elkarrekikotasuna, laugarren eta bosgarren kapituluetan jorratzen direnak; eta iii) ahozko eta idatzizko hizkuntzaren zailtasunak ulertzeko gakoak, eta garapen-prozesu horretan haur elebidunen berezitasunak, seigarren eta zazpigarren kapituluetan jorratzen diren gaiak.

Helburua hizkuntzaren garapen-prozesua modu sakonean ulertzea ahalbidetzen duen eskuliburu bat eskaintzea da, baita prozesu horretan egon daitezkeen hainbat arazo identifikatzea ere, detekzio eta hausnarketarako jarraibideak eskainiz. Ebidentziarik eguneratuenean oinarrituta, liburu honek informazio baliotsua eskaintzen die irakasleei, psikologoei, hizkuntza-profesionalei, eta, oro har, garapen optimoaren seinale nagusiak identifikatu eta garapenean sor daitezkeen zailtasunak ulertu nahi dituen edonori. Eskuliburu hau bereziki erabilgarria da logopediako ikasleentzat, baina baita irakasle, hezitzaile eta logopediako profesionalentzat ere, beren lan pedagogikoa eta klinikoa erraztu dezakeen eskuliburu eguneratu eta sistematikoa eskainiz.

Lehenengo kapituluan hizkuntza eskuratzearen oinarriak aztertzen dira, hiru faktore nagusi azpimarratuz: jaiotzetiko joerak (arreta bateratua, imitazioa eta elkarrekintza-jokabideak), hizkuntza-sarrera (sarreraren kantitatea eta kalitatea) eta haurraren garapen kognitiboa (arreta, oroimena eta funtzio exekutiboak). Lehen atalak azaltzen du jaiotzean gaitasun biologikoak sortzen direla giza soinuei eta ahots ezagunei erantzuteko eta lehen komunikazio-elkarrekintzetan parte hartzeko. Elkarrekintza horiek, zaintzaileen jokabide espezifikoekin batera (adib., haur-hizkera, hau da, prosodia markatuarekin tonu altuko hizkera), hizkuntzaren garapenaren oinarriak ezartzen dituzte, hitzen eta objektuen/ekintzen arteko loturak erraztuz. Garapen hori hizkuntza katalizatzen duten oinarri biologiko eta kognitibo batzuen arabera bakarrik da posible, eta horiek ere jorratzen dira kapitulu honetan.

Bigarren kapituluan hizkuntza eskuratzeari buruzko teoria nagusiak aztertzen dira, haurren hizkuntzaren garapena ulertzeko ikuspegi desberdinak aurkeztuz. Konduktismoak hizkuntza ikasitako portaera gisa ikusten du, asoziazioaren, indartzearen eta imitazioaren bidez eskuratzen dela argudiatuz. Natibistek, berriz, hizkuntzarako jaiotzetiko gaitasun bat dagoela diote, gramatika unibertsal baten bidez azaltzen dena. Teoria interakzionistek hizkuntza ulertzen dute giza adimenaren eta errealitate fisiko edo sozialen arteko elkarreraginaren emaitza gisa. Teoria bakoitzak abantailak eta mugak ditu, eta eztabaida aktibo dago oraindik hizkuntzaren eskuratzearen funtsezko mekanismoak zehazteko orduan.

Hirugarren kapituluan, hizkuntza ikertzeko metodologiak aztertzen dira. Ikuspegi teoriko batetik, zenbait metodologia erabili dira, hala nola hizkuntza-jokabideak zenbatzea, jaioberrietan modu naturalean sortzen diren komunikazio- eta hizkuntza-ereduak aztertzea, eta gizarte-elkarrekintzei behatzea eta hausnartzea. Kapituluak haurren hizkuntza-jokabidea aztertzeko ikerketa-diseinurik erabilienak azaltzen ditu, bai eta garapen-garai desberdinetan hizkuntza-gaitasun desberdinak neurtzeko gehien erabiltzen diren datuak biltzeko teknikak eta tresnak ere. Informazio horrek gakoak eman ditzake haurraren adinaren eta ebaluazio-behar espezifikoen arabera probak hautatzeko.

Laugarren kapituluan, bizitzaren lehen sei urteetan gertatzen den hizkuntzaren garapena jorratzen da, ahozko aurreko garaitik (lehen urtea) ahozko garaia garatu arte (12 hilabetetik aurrera). Garapen hori modu sistematikoan jorratzen da, adinarekin pixkanaka sortzen diren hizkuntza-dimentsioak kontuan hartuta. Lehenik eta behin, haurraren sistema fonologikoa nola ezartzen den eta nola barneratzen den deskribatzen da, haurraren soinuen bereizketa- eta sailkapen-prozesuak azalduz. Ondoren, hitzak ekoizteko prozesua jorratzen da eta haurrek hitzak nola lotzen dituzten haien erreferenteekin esanahi-sare aberats eta zehatz bat sortzeko. Azkenik, ezagutza lexiko eta semantiko horretan oinarrituta, haurrak sistema sintaktiko bat nola eraikitzen duen azaltzen da, bai eta esaldiak modu libre eta malguan nola sortzen dituen ere. Kapitulu honek azaltzen du bilakaera hori garapen intelektualarekin eta trebetasun metalinguistiko batzuekin batera doala, kontzeptuak eta hizkuntza errealitate bereizi eta kontziente gisa agertzea ahalbidetzen dutenak, borondatez manipulatu eta ikas daitezkeenak.

Bosgarren kapituluan eskola-aroan gertatzen den hizkuntzaren garapena jorratzen da. Etapa horretan, hizkuntzaren garapena morfosintaxiaren, pragmatikaren eta irakurketaren arloetan gertatzen da nagusiki. Haurrek lotura konplexuagoak ezartzen dituzte hitzen artean, esaldi konplexuak sortuz, eta

haien hiztegia nabarmen hazten da. Hitz-eraketa (adib., aurrizkien eta atzizkien erabilera) eta lexikoaren aniztasuna garatzen dira, eta testuinguru sozialetan komunikatzeko gaitasuna hobetzen da, haurrari elkarrizketa eraginkorragoak izateko eta egoera desberdinetara egokitzeko aukera emanez. Trebetasun horiei esker, haurrek istorioak laburbildu eta inferentziak egin ditzakete, edo gai baten inguruko elkarrizketak mantendu eta komunikazio-estilo konplexuagoekin narrazioak garatu. Trebetasun horiek irakurketaren garapenarekin batera doaz, eta horren oinarriak ere jorratzen dira kapitulu honetan.

Seigarren kapituluan hizkuntza eta irakurketari lotutako nahasmenduak azaltzen dira bi helbururekin: batetik, arrisku-seinaleak goiz detektatzea eta, bestetik, garapen-garai bakoitzaren araberako esku-hartze zehatz eta egokia aplikatzea. Hizkuntzaren atzerapenak edo hizkuntzaren garapenaren nahasmenduak (HGN) hizkuntzaren dimentsio desberdinetan (fonologia, semantika eta batez ere sintaxia) asinkronia dagoenean sortzen dira. Kapitulu honek atzerapen baten eta nahasmendu baten arteko desberdintasunak azaltzen ditu. Adibidez, haurren % 15ek 4 urte bete arte atzerapenak erakuts ditzakete, baina % 7k bakarrik dute nahasmendu iraunkorra. Gainera, haur horien zati handi batek irakurketa-nahasmenduekin komorbilitatea erakusten du, eta horrek biztanleriaren % 5i eragiten dio. Kapitulu honek ahozko eta idatzizko hizkuntzaren arrisku-faktoreak detektatzeko gakoak eta ebidentzian oinarritutako ebaluazio eta esku-hartze jarraibideak eskaintzen ditu, prebentzio- eta diagnostiko-ikuspegitik erabilgarriak izan daitezkeenak.

Zazpigarren kapituluak hizkuntzaren garapena jorratzen du testuinguru eleaniztunetan. Lehenik eta behin, haurraren adimenak bi sistema linguistiko edo gehiagorekin topo egiten duenean gertatzen den hizkuntzaren garapen-prozesua azaltzen da, eta garapen elebakarrarekin alderatuta egon daitezkeen aldeak identifikatzen dira. Esparru horren barruan, haur elebidunen ezaugarriak deskribatzen dira, eta ulermenean eta ekoizpenean izan daitezkeen atzerapen potentzialak ebaluatu eta interpretatzeko jarraibideak eskaintzen dira, haurraren hizkuntzen eta testuinguruen arabera. Kapituluak, halaber, ahozko eta idatzizko hizkuntzaren garapenean zailtasunak dituzten haurren ezaugarriak deskribatzen ditu testuinguru eleaniztunetan, haiek identifikatzeko eta haurraren gaitasunak zein testuinguru linguistikoak kontuan hartuta esku hartzeko oinarriak eskainiz.

Laburbilduz, eskuliburuak hizkuntzaren eskuratze eta garapenari buruz gaur egun dagoen ezagutza-maila altua eta eguneratua erakusten du, eta ezagutza hori pertsonen trebetasunik aberatsenetako eta konplexuenetako baten garapenean lagundu nahi duten ikasle eta profesionalen esku jartzen du.